

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN PLEGUA
FUNDACIÓN BASQUE TEAM FUNDAZIOAK PROZEDURA IREKI ARRUNTAREN BIDEZ DEITUTAKO
LEHIAKETA HONENA: "PROZEDURA IREKI ARRUNTAREN BIDEZ IKUS-ENTZUNEZKOEN OINARRIZKO
ZERBITZUEN KONTRATU BAT FUNDACIÓN BASQUE TEAM FUNDAZIOARENTZAT"

AURKIBIDEA

I. XEDAPEN OROKORRAK.....	ERROREA! LASTER-MARKA DEFINITU GABE.
1. Erakunde kontratatzailea	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
2. Izaera, araubide juridikoa eta jurisdikzio eskumenduna.....	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
3. Kontratuaren xedea	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
4. Kontratuaren iraupena.....	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
5. Kontratuaren prezioa, balio zenbatetsia eta kontabilitate-errubrika.....	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
6. Lotetan banatzea.....	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
7. Zehaztapen teknikoak	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
II. XEDAPEN ESPEZIFIKOAK	ERROREA! LASTER-MARKA DEFINITU GABE.
8. Adjudikatzeko eta tramitatzeko modua.....	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
9. Lehiaketaren dokumentazioa eta informazioa	5
10. Bermeak	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
10.1 Behin-behinekoa	5
10.2 behin betikoa.....	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
11. Proposamenak aurkeztea.....	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
11.1 Lekua eta epea	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
11.2 Izapideak egiteko bitartekoak.....	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
11.3 Hauek dira hura erabiltzeko betekizunak	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
11.4 Aurkezteko modua	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
11.5 Proposamenari buruzko ohar argigarriak.....	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
11.6 Baztertzeko arrazoiak	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
12. Proposamenen edukia	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
12.1 (A) gutun-azala: Aurretiazko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa.....	9
12.2 (B) gutun-azala: Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei buruzko dokumentazioa.....	10
12.3 (C) gutun-azala: Formula bidez kuantifikatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa.....	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
13. Adjudikatzeko irizpideak	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
14. Eskaintzak baloratzea.....	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
14.1 Proposamenak irekitzeari dagozkion jarduketak.....	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
15. Proposamenak sailkatzea. Kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartzea eta adjudikazio-prozeduran atzera egitea	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
16. Kontratua adjudikatzea, suntsiaraztea eta jakinaraztea.....	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
17. Kontratua formalizatzea.....	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
III. ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK.....	ERROREA! LASTER-MARKA DEFINITU GABE.
18. Kontratua gauzatzeko baldintzak.....	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
19. Kontratua aldatzea	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
20. Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
IV. BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK	ERROREA! LASTER-MARKA DEFINITU GABE.
21. jakinarazpenak	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
22. Prezioak berrikustea.....	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
23. Epeak	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
24. Aldaeren onargarritasuna	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
25. Publizitate gastuak	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
26. Subrogatzea.....	15

27.	Beste informazio batzuk.....	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
I. ERANSKINA		17
III. ERANSKINA		19
IV. ERANSKINA	ERROREA! LASTER-MARKA DEFINITU GABE.	
V. ERANSKINA		23
VI. ERANSKINA		25

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Erakunde kontratatzailea

Klausula-orri hauen azaleko orriaren **2. puntuan** adierazitakoa da entitate kontratatzailea (aurrerantzean, "**Erakunde Kontratatzailea**"), eta puntu berean adierazten dira haren datuak, helbidea, telefonoa eta kontratatzailearen profila.

2. Izaera, araubide juridikoa eta jurisdikzio eskumenduna

Lizitazio honen xede den kontratua pribatua da.

Prestatzeko eta adjudikatzeko, administrazio-klausula hauek eta karatulako **3. puntuan** adierazitako xedapenak bete beharko dira.

Ondorioei eta azkentzeari dagokienez, zuzenbide pribatuko arauak arautuko dute. Hala ere, honako artikulua hauetan xedatutakoa aplikatuko zaio: 201. artikulua, ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrei buruzkoa; 202. artikulua, betearazteko baldintza bereziei buruzkoa; 203. artikulutik 205.era, kontratua aldatzeko kasuei buruzkoa; 214. artikulutik 217.era, lagapenari eta azpikontratazioari buruzkoa; eta 218.etik 228.era, kontratazioaren arrazionalizazio teknikoari buruzkoa. Halaber, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 198. artikuluen 4. apartatua, 210. artikuluen 4. apartatua eta 243. artikuluen 1. apartatua ezarritako ordainketa-baldintzak aplikatuko zaizkio, bai eta 319. eta 320. artikuluetan xedatutakoa ere. Izan ere, lege horrek egiten du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa. ("**SPKL**").

Kontratuaren prestaketa, adjudikazioa eta aldaketak direla eta, aldean artean sortu daitezkeen eztabaidetan —horiek guztiak aurkaratzearen oinarria SPKLko 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea denean, eta pentsatzen delako egindako moldaketa hori berriz adjudikatu behar dela—, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da ardura hartzeko eskuduna.

Kontratuaren ondorioei eta azkentzeari buruz alderdien artean sortzen diren eztabaiden ardura hartzeko, jurisdikzio-ordena zibila izango da eskuduna, aurreko lerrokadan aipatutako kontratu-aldaketetan izan ezik.

3. Kontratuaren xedea

Kontratuaren xedea karatulako **4. puntuan** zehaztutakoa da.

4. Kontratuaren iraupena

Kontratuaren iraupena eta/edo prestazioa gauzatzeko epea karatulako **5. puntuan** ezarritakoa izango da.

Karatulako **6. puntuan** hala aurreikusten bada, kontratua luzatu egin ahal izango da, prestazio berak hasierakoa ez den beste aldi batean errepikatzeko.

5. **Kontratuaren prezioa, balio zenbatetsia eta kontabilitate-errubrika**

Lizitazioaren gehieneko aurrekontua karatulako **7. puntu**an dago jasota, eta hor bertan adierazten da kontratuaren balio zenbatetsia ere, bai eta, hala badagokio, prezioa ordaintzeko erabiliko den kontabilitate-errubrika ere.

6. **Lotetan banatzea**

Kontratua lotetan banatuko da, karatulako **8. puntu**an adierazitakoaren arabera, **9. puntu**an ezarritako muga eta aukerekin.

7. **Zehaztapen teknikoak**

Kontratuaren xede den prestazioa plegu honetan eta **I. eranskinean** (kontratuaren parte ere badena) agertzen diren baldintzetara egokituko da.

II. XEDAPEN ESPEZIFIKOAK

8. **Adjudikatzeko eta tramitatzeko modua**

Karatulako **10. puntu**an adierazitako prozeduraren bidetik eta izapideak egiteko moduaren arabera esleituko da kontratu hau, eta karatularen puntu berean adierazitako arauak bete beharko dira.

9. **Lehiaketaren dokumentazioa eta informazioa**

Interesdunek pleguak, kontratua eta gainerako dokumentazio garrantzitsu guztia aztertu ahal izango dute karatulako **11. puntu**an adierazitako lekuan, eta bertan lortu ahal izango dituzte dokumentazioaren kopiak.

Erakunde kontratatzaileak ebatziko ditu dokumentazioari eta lehiaketaren gainerako betekizunei buruzko zalantzak.

Lizitazio-prozeduran interesdun diren guztiei emango zaie, eskaintzak aurkezteko finkatutako epea amaitu baino 6 egun lehenago beranduenez, pleguei eta gainerako dokumentazio osagarriari buruz eskatzen duten informazio gehigarria; horretarako, proposamenak edo parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea iragan baino 12 egun lehenago eskatu behar dute informazio hori interesdunek.

Karatulako puntu horretan, hala badagokio, kontratuaren xedea gauzatzeko lekua bisitatzeko aukera adieraziko da.

10. **Bermeak**

10.1 **Behin-behinekoa**

Ez da aukerarik izango behin-behineko bermea eskatzeko, salbu eta aparteko kasuetan, eta interes publikoko arrazoiak tarteko, beharrezkotzat jotzen denean eta karatularen **12. puntu**an arrazoiz justifikatuta. Eta hala badagokio, puntu horretan bertan adieraziko beharko da aldez aurretik berme bat eratu behar dela, egindako eskaintzei eusteko kontratua burutu arte.

Berme hori 108. artikuluan 1. paragrafoan aurreikusitako moduan eratu ahal izango da. Abala eta kauzio-asegurua **II. eranskin gisa** erantsitako eredura egokituko dira.

Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, enpresa parte-hartzaile bakar batek edo batzuek eratu ahal izango dituzte behin-behineko bermeak, baldin eta, guztira, agiri honetan eskatutako zenbatekora iristen bada eta aldi baterako elkarteko kide guztiak solidarioki bermatuta geratzen badira.

Behin-behineko berme hau automatikoki azkenduko da, eta kontratua burutu eta berehala itzuliko zaie lizitatzaillei. Nolanahi ere, behin-behineko bermea behin betiko bermea eratzten denean itzuliko zaio adjudikazioa lortu duen lizitatzailari. Dena den, aukeran izango du behin-behineko bermearen zenbatekoa behin betiko bermea eratzeko erabiltzeko, edo, bestela, behin betiko berme berri bat jartzeko.

10.2 Behin betikoa

Karatulako **13. puntuan** hala aurreikusten bada, eskaintzarik onenak aurkezten dituzten lizitatzailleek puntu horretan adierazitako zenbatekoaren bermea jarri beharko dute kontratazio-organoaren eskura.

Bermea SPKLren 108. artikuluan aurreikusitako moduetakoren batean aurkeztu ahal izango da. Abala eta kauzio-asegurua **III. eranskineko** ereduari egokituko zaizkio.

Horiek itzultzeko edo ezerezteko araubidea SPKLren 109. eta 111. artikuluetan ezarritakoa izango da.

Behin betiko bermea SPKLren 110. artikuluko erantzukizunei lotuta geratuko da.

11. Proposamenak aurkeztea

11.1 Lekua eta epea

Lizitatzailleek elektronikoki aurkeztuko dituzte beren proposamenak, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren bidez, eta karatulako **14. puntuan** adierazitako egunera eta ordura arteko epea izango dute.

11.2 Izapideak egiteko bitartekoak

Karatulako **28. puntuan** kontratua adjudikatzeko prozedura izapidetzeko bitartekoak elektronikoki ez direla adierazten ez bada, parte hartzeko eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, LIZITAZIO ELEKTRONIKOKO SISTEMA izeneko aplikazioaren bidez. Aplikazio hori KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN PLATAFORMA CONTRATACIÓN PÚBLICA EN EUSKADI SISTEMA DE LICITACIÓN ELECTRÓNICA plataforman dago kokatuta.

11.3 Hauek dira hura erabiltzeko betekizunak

(i) Betekizun administratiboak:

- a. Ziurtagiri digital bat edukitzea, izapide elektronikoki egiteko EAEko Administrazioak baimendu duena. Gaur egun hauek dira ziurtagiri elektronikoki horiek:
 - Izenpe (Entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria)

- FNMT (Entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria)
- NAN-a
- Camerfirma (Entitatea, herritarra).

Aitortutako ziurtagiri elektronikoei buruzko informazioa esteka honetan dago eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/dokumentazioa/identifikazio-elektronikoa-erabiltzeko-gidaliburua/web01-sede/eu/>

b. Egoera hauetako batean egotea:

- Alta emanda egotea eta ziurtagiria indarrean izatea Euskadiko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan.
- “Lizitazio Elektronikorako Aldi Baterako Gaikuntza” sisteman alta emanda egotea. Sistema horrek Lizitazio Elektronikoren Sisteman sartzeko aukera ematen die Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuta ez dauden enpresei eta ABEEan parte hartu nahi duten enpresa-taldeei.
- Bi operadore ekonomiko edo gehiagok taldekatuta parte hartzen badute, adjudikaziodun suertatuz gero formalki ABEE bat eratzeko konpromisoarekin: ABEEren konpromisoa erregistraturik egon beharko da behin-behineko gaikuntza-sisteman.

Honi buruzko informazioa esteka honetan dago eskuragarri:

<https://www.contratacion.euskadi.eus/acceso-a-la-licitacion-electronica-en-la-plataforma-kontratazioa-empresas/webkpe00-kpelichel/es/>

(ii) Betekizun teknikoak:

Betekizun teknikoei buruzko informazioa PPTan dago eskuragarri, baita esteka honetan ere:

<https://www.contratacion.euskadi.eus/acceso-a-la-licitacion-electronica-en-la-plataforma-kontratazioa-empresas/webkpe00-kpelichel/es/>

**(iii) Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko euskarri-zerbitzua:
945 016 298**

11.4 Aurkezteko modua

- (i) Aplikazioan agertzen diren gutun-azaletan, kontratazioa arautzen duten pleguetan adierazitako agiriak erantsi behar dira.
- (ii) Gordetako dokumentuak irakurriko direla eta izapidetuko direla honako luzapen hauekin bakarrik bermatzen da: .doc, .xls, .ppt, .docx, .xlsx, .pptx, .pdf, .rtf, .sxw, .sdw, .abw, .xml, .jpg, .bmp, .tiff, .zip, eta .7z
- (iii) Birusak egoteak sistemaren eraginkortasunean izan dezakeen eragina minimizatzeko, dokumentuak .pdf, .rtf, .sxw, .jpg eta .tiff formatuetan bidaltzea gomendatzen da.

- (iv) Eskaintza aurkezteko zehaztutako epean jaso dela ulertuko da, baldin eta igorketa epe horren barruan hasi bada eta arrakastaz amaitzen bada.

11.5 Proposamenari buruzko ohar argigarriak

Proposamena aurkeztu ondoren, lizitatzailleak ezin izango du proposamena erretiratu, justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Lizitatzailleek nahitaez eutsi beharko diote eskaintzari karatulako **27. puntuan** adierazitako epean. Epe hori eskaintzak aurkezteko ezarritako epea amaitzen denetik aurrera hasiko da zenbatzen.

Lizitatzaille bakoitzak proposamen bakar bat baino ezin izango du aurkeztu, hargatik eragotzi gabe aldaerak onartzeari buruz karatularen **23. puntuan** ezarritakoa. Halaber, ezingo du proposamenik aurkeztu beste lizitatzaille batzuekin batera aldi baterako elkarte eginez, aurretik bakarka aurkeztu badu, eta ezingo da egon aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan ere. Paragrafo honetan aurreikusitakoa urratuz gero, ez da onartuko berak sinatutako proposamen bakar bat ere.

Ez dira onartuko eskaintza kontuan hartzeko funtsezkotzat jotzen diren alderdiak argi eta garbi ulertzea eragozten duten kontraesanak, omisioak, akatsak edo zirriborroak dituzten proposamenak.

Interesdunen proposamenek lizitazioa arautzen duten pleguen eta dokumentazioaren araberrakoak izan beharko dute, eta haiek aurkezteak berekin dakar enpresaburuak klausula edo baldintza guztien edukia baldintzarik gabe onartzea, salbuespenik edo erreserbarik gabe, bai eta mahaiairi eta kontratazio-organoari baimena ematea ere Sektore Publikoko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko kidea den estatu bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko ere.

11.6 Baztertzeako arrazoiak

Lehiaketatik kanpo geratuko da egoera hauetakoren batean dagoen edozein proposamen, eta erakunde kontratatzaileak arrazoitu egin beharko du erabaki hori hartu izana:

- (i) Dokumentazioa epez kanpo aurkeztea.
- (ii) Eskatutako kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionala ez egiaztatzea.
- (iii) Hainbat proposamen ekonomiko aurkeztea, banaka edo beste lizitatzaille batzuekin aldi baterako elkartuta.
- (iv) Zehaztapen teknikoak edo lizitazioaren gehienezko tasa ez betetzea.
- (v) Gutun-azal batean beste batean aurkeztu beharreko dokumentazioa edo fitxategi elektronikoa sartzea.
- (vi) Plegu honetan edo zehaztapen teknikoenean ezarritako baldintzak ez betetzea edo eskatutako dokumentazioa (B) edo (C) gutun-azalean ez sartzea.

Baztertutako proposamenak dagokion aktan edo eginbide bidez jasoko dira, baztertzeko arrazoiak arrazoituta.

12. Proposamenen edukia

Aurkezten diren proposamenek hiru gutun-azal edo artxibo elektroniko izango dituzte, lizitatzailerak edo haren ordezkariak sinatuta. Gutun-azal edo artxibo horietako bakoitzean honako hauek jasoko dira:

12.1 (A) gutun-azala: aurretiazko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa

Egindako proposamenekin batera, **Europako kontratazio-agiri bakarraren ("EKAB")** formularioarekin bat datorren erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, sinatuta eta dagokion identifikazioarekin, eta hartan honako hau adieraziko du lizitatzailerak:

- (i) Sozietatea balio duen eran eratuta dagoela eta lizitaziora aurkeztu ahal dela bere xede sozialaren arabera, eta adierazpenaren sinatzaileak behar den ordezkaritza duela proposamena aurkezteko eta hura ordezkatzeko.
- (ii) Dagokion sailkapena duela, hala badagokio, edo kaudimen ekonomiko eta finantzarioari eta gaitasun tekniko edo profesionalari buruzko baldintzak betetzen dituela.
- (iii) Ez duela ez berez, ez hedapenez, kontratatzeke debekurik SPKLaren 71.3 artikulua aplikatzearen ondorioz.
- (iv) Posta elektronikoko helbide bat izendatzen duela, zeinean jakinarazpenak jasoko baitira; eta helbide hori SPKLaren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera «gaitu» beharko da.

EKAB-a honako helbide elektroniko honetan dagoen ereduaren arabera bete beharko da: <https://visor.registrodelicitadores.gob.es/home>

Enpresaburuak beste enpresa batzuen kaudimenera eta baliabideetara jotzen duen kasuetan, SPKLko 75. artikuluan xedatutakoari jarraituz, enpresa horietako bakoitzak erantzukizunpeko deklarazio bat aurkeztu beharko du. Deklarazio horretan, kasu hauetarako behar den informazioa jasoko da, Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formulario normalizatuari jarraituz. SPKLko 75. artikuluen 2. apartatuak aipatzen duen konpromisoa SPKLko 140. artikuluen hirugarren apartatuan xedatutakoaren arabera aurkeztuko da.

Aurrekoa gorabehera, kontratista enpresa sortu berri bat denean —bost urtetik beherako antzintasuna dutenak hartuta halakotzat—, jarraian aipatzen den moduan egiaztatuko da kaudimen tekniko; eta ezin izango zaio inola ere eskatu kontratuaren xedea osatzen duten zerbitzu edo lan berdin edo antzeko nagusien zerrenda bat aurkezteko:

– Enpresaburuaren eta enpresako zuzendaritza-taldeko kideen titulu akademikoak eta lanbide-tituluak, eta, batez ere, kontratua egikaritzeko arduradunarenak edo arduradunenak, bai eta obraz zuzenean arduratuko diren teknikarienak ere.

Karatulako **12. puntuan** behin-behineko bermea eratzea eskatzen bada, bermea eratu dela egiaztatzen duen agiria aurkeztuko da.

Enpresaburu batzuk aldi baterako enpresa-elkarte batean bildurik aurkezten diren kasu guztietan, enpresa parte-hartzaile bakoitzaren erantzukizunpeko deklarazio bat aurkeztuko

da. Deklarazio horretan, kasu hauetan Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formularioan eskatzen den informazioa jasoko da.

Aurreko paragrafoak aipatzen duen adierazpenaz edo adierazpenez gainera, aldi baterako enpresa-elkartean parte diren enpresaburuek elkarte hori eratzekeo duten konpromisoa aurkeztu beharko da, SPKLaren 69. artikulua 3. apartatua eskatutakoari jarraituz.

Erantzukizunpeko deklarazioaz gainera, atzerriko enpresek, kontratua Espainian egikaritzekoa baldin bada, Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla jakinarazteko adierazpena aurkeztu beharko dute, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako, eta kasu suertatuko balitz lizitatzailerari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egingo lioketela jakinaraziko dute bertan.

Karatularen **8. puntuan** kontratuaren objektua sortatan banatzea aurreikusten denean, eskatzen diren ekonomia- eta finantza-kaudimeneko edo kaudimen tekniko eta profesionaleko baldintzak sortatik sortara aldatzen badira, kaudimen-betekizun berak aplikatzen zaizkion sorta bakoitzari edo sorta multzo bakoitzari buruzko erantzukizunpeko deklarazio bana aurkeztuko da.

Kontratazio-organoak edo -mahaiak (edo Plegu honetan aurreikusitako antzeko organoak) edo egiaztagiri guztiak edo haietako batzuk aurkezteko eskatu ahalko diete hautagaiei edo lizitatzaileriei, baldin eta uste badute arrazoizko zalantza daudela adierazpena indarrean egoteari buruz edo haren fidagarritasunari buruz, hori prozedura egoki garatzeko beharrezkoa denean eta, nolanahi ere, kontratua adjudikatu baino lehen.

Aurrekoa gorabehera, enpresaburua Sektore Publikoko Lizitatzaileraren eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoenean edo Europar Batasuneko estatu baten datu-base nazional batean ageri denean —esate baterako, enpresaren espediente birtual batean, dokumentuen biltegiatze elektronikorako sistema batean edo aurre-kalifikaziorako sistema batean—, eta datu horiek organo horietarako doan eskuragarri daudenean, enpresaburuak ez du izango aipatutako tokietan inskribatutako datuei buruzko egiaztagiririk edo dokumentu-frogarik aurkezteko betebeharririk.

Kontratatze gaitasunari, kaudimenari eta debekurik ezari buruz aurreko paragrafoetan aipatzen diren inguruabarrak indarrean egon beharko dute eskaintzak aurkezteko azken egunean, eta kontratua burutzen den unean bere horretan iraun beharko dute.

12.2 (B) gutun-azala: Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei buruzko dokumentazioa

(B) gutun-azalarekin batera, karatulako **16. puntuan** zehaztutako agiriak aurkeztu beharko dira.

Gutun-azal honetan ez da inola ere sartu beharko formularen arabera kuantifikatu daitekeen informaziorik. **Gutun-azal honetan, zuzenean edo zeharka, formula bidez ebalua daitezkeen irizpideak aplikatzeko informazio garrantzitsua aipatzen bada, eskaintzatik kanpo geratuko da.**

12.3 (C) gutun-azala: Formula bidez kuantifikatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa

(C) gutun-azalak karatulako **17. puntuan** zehaztutako agiriak barne hartuko ditu.

13. Adjudikatzeko irizpideak

Eskaintzak karatulako **18. puntu**an ezarritako irizpideen arabera baloratuko dira.

14. Eskaintzak baloratzea

14.1 Proposamenak irekitzeari dagozkion jarduketak

(i) (A) gutun-azalak irekitzea eta kalifikatzea

Kontratazio-mahaiak, saio pribatuan eta (B) gutun-azala ireki aurretik, (A) gutun-azalean jasotako dokumentazioa aztertuko eta kalifikatuko du.

(A) gutun-azalak ireki ondoren, kontratazio-mahaiak horietan jasotako dokumentazioan zuzentzeko moduko akatsak edo hutsuneak ikusten baditu, edo dokumentazio horri buruzko argibideren bat behar dela irizten badiu, 3 egun balioduneko epea emango die akats edo hutsune horiek egin dituzten lizitatzaleei, egin beharreko zuzenketak, konponketak edo argibideak egin ditzaten. Hala ere, lizitazioaren batean funtsezko akatsak edo zuzendu ezin diren akats materialak hautematen baditu, lizitazio hori ez da onartuko.

Akta idatziko da, eta egindako guztiak jasoko dira bertan.

(ii) (B) gutun-azala irekitzea

(A) gutun-azala ireki eta, hala badagokio, akatsak zuzendu ondoren, eta profilean zein proposamen onartu diren eta, hala badagokio, zein ez onartu diren eta zergatik ez diren onartu argitaratu ondoren, kontratazio-mahaia karatulako 19. puntuari adierazitako moduan eratu da, (B) gutun-azala ireki eta irakurtzeko.

Egoki iritziz gero, mahaiak beharrezko iritzitako txosten eta aholkularitza guztiak eskatu ahal izango ditu (B) gutun-azalaren dokumentazioa aztertu eta baloratzeko. Halaber, aurkeztutako edozein agiriri buruzko azalpenak eskatu ahal izango dizkie lizitatzaleei.

Akta egingo da eta egindako guztia jasoko da.

(iii) (C) gutun-azala irekitzea

Gutun-azalak (B) aztertu eta ebaluatu ondoren, eta horien balorazioaren emaitzaren profilean argitaratu ondoren, kontratazio-mahaia eratu da karatulako 20. puntuari adierazitako moduan, (C) gutun-azala ireki eta irakurtzeko.

Akta egingo da eta egindako guztia jasoko da.

(iv) Sailkapen-proposamena

Erakunde kontratatzaileak, aurkeztutako eskaintzak ikusita, eta behin betiko balorazioa egiteko behar diren txostenak eskatu ondoren, txosten tekniko bat prestatuko du, eta bertan, aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu karatulako **18. puntu**an ezarritako esleipen-irizpideen arabera, handienetik txikienera.

15. Proposamenak sailkatzea. Kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartzea eta adjudikazio-prozeduran atzera egitea.

Kontratazio-mahaiak edo kontratazioa gauzatzeko eratutako kide anitzeko organoak, edo bestela, kontratazio-organoak beheranzko hurrenkeran sailkatuko ditu aurkeztutako proposamenak, eta, gero, kasuko proposamena aurkeztuko dio kontratazio-organoari, baldin eta sailkapena kontratazio-mahaiak edo kontratazioa gauzatzeko berariaz sortutako kide anitzeko organoak egiten badu.

Sailkapen hori egiteko, karatulako **18. puntuan** adierazitako esleipen-irizpideak hartuko dira kontuan.

Behin kontratazio-organoak mahaiaren edo berariaz eratutako kide anitzeko organoaren proposamena onartuta, dagozkion zerbitzuek egiaztagiri hauek eskatuko dizkiote ZPKLren 145. artikuluan xedatutakoaren arabera eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzailari: ZPKLren 140. artikulua 1. apartatuaren a)-tik c) letrera aipatzen diren inguruabarrei buruzko egiaztagiriak, aurrez aurkeztu ez baditu, bai lizitatzailari dagokionez, bai eta erabiliko dituen gaitasun-baliabideen gainerako enpresei dagokionez ere —alde batera utzi gabe, halere, artikulua horren 3. apartatuaren bigarren paragrafoan ezarritakoa—; kontratua egikaritzeko hitzeman dituen baliabideak egiazki badituela egiaztatzen duten agiriak, 76.2 artikuluari jarraituz eskatutakoak, eta karatulako **13. puntuan** ezarritako behin betiko bermea jarri izanari buruzko egiaztagiriak. Hamar egun balioduneko epean aurkeztu beharko ditu egiaztagiriok, errekerimendua jaso duen egunetik kontatzen hasita. Ziurtagiriak bitarteko elektronikoko, informatiko edo telematikoen bidez igorri ahal izango dira.

Errekerimendua aipatutako epean egoki betetzen ez bada, ulertuko da lizitatzailak bere eskaintza erretiratu duela, eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren ehuneko 3 eskatuko zaio, BEZa barne, zigor moduan; zenbateko hori, lehenbizi, behin-behineko bermearekin ordainduko da, baldin eta hori jarri bada, alde batera utzi Gabe SPKLren 71. artikulua 2. apartatuko a) letran ezarritakoa.

Aurreko lerrokadan adierazitako kasuan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzailari, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeran.

Kontratazio-organoak dagokion deialdia egin duen adjudikazio-prozedurari uko egiten badio edo kontratu bat ez adjudikatzea edo ez egitea erabakitzen badu, hautagaiei eta lizitatzailari jakinaraziko die, eta Europako Batzordea ere erabaki horren jakinaren gainean jarriko du, baldin eta kontratua «Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean» iragarri bada.

Kontratazio-organoak kontratua formalizatu aurretik erabaki ahalko du kontratua ez adjudikatzea edo ez egitea edo prozeduran atzera egitea. Halakoetan, kalte-ordaina emango zaie lizitazioan parte hartzeko gaitzat jo diren hautagaiei edo lizitatzailari, egin dituzten gastuak direla eta, karatularen **21. puntuan** ezarritako moduan.

16. Kontratua adjudikatzea, suntsiaraztea eta jakinaraztea

Kontratazio-organoak dokumentazioa jaso eta bost egun balioduneko epean adjudikatuko du kontratua.

Ezingo da lizitazio bat adjudikatu gabe utzi, baldin eta pleguan ageri diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat badago.

Adjudikazioaren ebazpena arrazoitu egin beharko da, eta hautagai eta lizitatzailari jakinaraziko zaie, eta kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da 15 eguneko epean.

SPKLko 155. artikulua 1. apartatua ezarritakoa alde batera utzi gabe, aurreko apartatuak aipatzen dituen jakinarazpenak eta argitalpenak behar adina informazio eman beharko dute adjudikazio-prozeduran interesa dutenek modua izan dezaten adjudikazioaren erabakiaren aurka behar besteko oinarriarekin errekurtsua aurkezteko.

Jakinarazpenean, kontratua egiteko epea aipatuko da, SPKLko 153. artikulua 3. apartatua ezarritakoari jarraituz.

Jakinarazpena bitarteko elektronikoak erabiliz egingo da, SPKLko hamabosgarren xedapen iragankorrean ezarritakoaren arabera.

17. Kontratua formalizatzea

Kontratua **IV. eranskin**eko ereduaren arabera formalizatuko da. Loteka esleitutako kontratuetan, lote bakoitzak kontratu bat osatuko du, eskaintza integratzaileak aurkeztzen diren kasuetan izan ezik, kasu horietan eskaintza guztiak kontratu bat izango baitira.

Kontratua honako arau hauen arabera formalizatuko da:

- (i) Kontratuaren aurka kontratazio-arloko errekurtsu berezia jar badaiteke SPKLren 44. artikulua arabera, kontratua ezin izango da formalizatu enpresa lizitatzaileri adjudikazioa jakinarazten zaienetik hamabost egun baliodun igaro baino lehen.

Kontratazio-organoaren menpeko zerbitzuek kontratua formalizatzeko eskatuko dio adjudikaziodunari, gehienez ere bost eguneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igaro eta kontratuaren formalizazioa etetea dakarren errekurtsorik jarri ez bada. Berdin jokatu da errekurtsua ebazteko eskumena duen organoak etetea bertan behera uzten duenean.

- (ii) Gainerako kasuetan, enpresa lizitatzailerek eta hautagaiek, SPKLko 151 artikuluan ezarritako moduan, esleipenaren jakinarazpena jaso eta hamabost egun baliodun igaro baino lehen formalizatu beharko da kontratua.

Adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta kontratua epe horren barruan formalizatu ez bada, lizitazioaren oinarrizko prezioaren ehuneko 3ko zenbatekoa eskatuko zaio, BEZa kanpo, zigor gisa. Zenbateko hori, lehenik eta behin, behin betiko bermearen aurka ordainduko da, eratu bada, SPKLren 71. artikulua 2. zenbakiaren b) letran ezarritakoari kalterik egin gabe.

Kasu horretan, kontratua hurrengo lizitatzaileri adjudikatuko zaio, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkerari jarraituz. Horretarako, SPKLren 150. artikulua 2. apartatua ezarritako dokumentazioa aurkeztu beharko du hark aurrez, eta aurreko apartatua ezarritako epeak izango dira aplikatzekoak.

Kontratuen formalizazioa, harekin batera, kontratua burutu eta gehienez hamabost eguneko epean argitaratu beharko da, kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean. Kontratua arau harmonizatupean dagoenean, formalizazio-iragarkia «Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean» ere argitaratu beharko da.

III. ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK

18. Kontratua gauzatzeko baldintzak

Adjudikaziodunaren betebeharrak **IV. eranskin**eko ereduaren arabera egingo den kontratutik eratorritakoak izango dira.

19. Kontratua aldatzea

Erakunde kontratatzaileak kontratua aldatu ahal izango du **IV. eranskin** gisa erantsitako kontratuan adierazitako moduan.

20. Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak

Karatulako 27. paragrafoan aurreikusitako betebeharrak betetzen ez badira, kontratua suntsiarazi ahal izango da, eta karatula horretan eta IV. eranskinean aurreikusitako zigorrek ezarri ahal izango dira.

Erakunde adjudikaziodunak lanean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzen edo sustatzen duten neurriak edo planak izan beharko ditu, eta hori egokia da kontratuaren xederako, giza baliabideek prestazioan zer garrantzia duten kontuan hartuta.

Kontratuaren erakunde adjudikaziodunak **V. eranskin**eko ereduaren arabera aitortzea aurkeztu beharko du 20. artikuluko baldintza bereziak betetzen dituela egiaztatzeko. Aitortzea hori urtero aurkeztu beharko da kontratua sinatzen denetik eta, nolabait ere, kontratua amaitzen denean.

Aurrekoari kalterik egin gabe, erakunde kontratatzaileak kontratua betetzen den kontrolatzeko eta ebaluatzeko egokitutako jotzen duen edozein dokumentazio eskatu ahal izango dio erakunde adjudikaziodunari, eta jarraipen-bilerak izatea edo aldizkako ebaluazio-txostenak egiteko eskatu ahal izango du.

Agiri horiek aurkezteko betebeharra (erantzukizunpeko adierazpena barne, adierazitako aldizkakotasunarekin) kontratu-betebehartzat hartuko da, eta hori ez betetzeak kontratua suntsiaraztea eta kontratuan aurreikusitako zigorrek ezartzea ekar dezake.

IV. BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK

21. Jakinarazpenak

Kontratuen adjudikaziorako prozedura izapidetzeak berekin ekarriko du harekin zerikusia duten jakinarazpen eta komunikazioak soilik bide elektronikoaren bitartez egitea.

Aurreko lehenikadaren xedatutakoa gorabehera, ahozko komunikazioa erabili ahal da kontratazio-prozedura baten funtsezko elementuei buruzkoak ez diren komunikazioetarako, baldin eta ahozko komunikazioaren edukia nahikoa dokumentaturik badago. Horri dagokionez, kontratazio-prozedura baten funtsezko elementuak honako hauek dira: kontratazioaren pleguak, parte hartzeko eskaerak eta eskaintzak. Berezi, eskaintzen edukian eta ebaluazioan funtsezko eragina izan dezaketen lizitatzaileekiko ahozko komunikazioak nahikoa dokumentatuta egongo dira, behar diren bitartekoen bidez; besteak beste, komunikazioaren elementu nagusien fitxategiak edo idatzizko eta ahozko laburpenak.

Jakinarazpenak horretarako prestatutako helbide elektronikoaren erabiliz edo, bestela, agerraldi elektronikoaren bidez egin ahal dira.

Jakinarazpenetik hasita kontaktatzen diren epeak jakinarazpena edo jakinarazpenaren abisua igorri den egunetik hasiko dira kontaktatzen, baldin eta agerraldi elektronikoaren bidezko jakinarazpena bada, betiere jakinarazpenaren xede den egintza egun berean argitaratu bada kontratazio-organismoaren kontratatzailearen profilean. Hala ez bada, epeak interesdunak jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera kontaktatuko dira.

Aurrekoa gorabehera, kontratatzailearen profilean egin beharreko publizitatearen baldintza ez zaie aplikatuko errekurso bereziaren prozedura dela-eta egiten diren jakinarazpenei, zeinak prozedura ebazteko organo eskudunek egindakoak baitira; izan ere, halakoetan, epeak kontatuko dira hura edo jakinarazpenaren abisua igortzen den datatik aurrera, baldin eta agerraldi elektronikoaren bidezkoa bada.

22. Prezioak berrikustea

Prezioak berrikusteari dagokionez, karatulako **22. puntuan** adierazitakoa beteko da; bertan, prezioen berrikuspena bidezkoa den ala ez eta aplikatu beharreko formula adieraziko dira.

23. Epeak

Berariaz kontrakoa adierazi ezean, agiri honetan jasotako epe guztiak egun naturalei dagozkiela ulertuko da.

24. Aldaeren onargarritasuna

Aldaerak sartzeko aukera karatulako **23. puntuan** zehaztuko da.

Onargarriak badira, aldaerek eskaintzaren zein elementu ukituko dituzten (guzti.guztiak) zehaztu beharko dute.

25. Publizitate gastuak

Lehiaketa honetako publizitate-gastu guztiak (egunkarietan argitaratutako iragarkiak barne, hala badagokio) enpresa adjudikaziodunaren kontura izango dira, karatulako **24. puntuan** hala xedatzen denean. Gastu horiek karatulako puntu honetan bertan adierazitako gehieneko zenbatekoaren kostua izango dute, eta erakunde kontratatzaileak kontratua formalizatu aurretik fakturatuko dizkio enpresa adjudikaziodunari.

26. Subrogatzea

Lege-arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektiboko akordio batek adjudikaziodunari ezartzen dionean lan-harreman jakin batzuetan enplegatzaile gisa subrogatzeko betebeharra, subrogazioak eragindako langileen kontratuen baldintzei buruzko informazioa emango zaie lizitatzzaileei karatulako **26. puntuan**, neurri horrek ekarriko dituen lan-kostuen ebaluazio zehatza egin ahal izateko. Informazio hori SPKLren 130. artikuluan aurreikusitakoa betetzeko emango da.

Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 44. Artikuluan ezarritakoa aplikatzeari kalterik egin gabe, kontratistak nahitaez ordaindu beharko ditu subrogazioak eragindako langileei ordaindu gabeko soldatak, bai eta sortutako Gizarte Segurantzako kotizazioak ere, eta hori kontratua suntsiarazi arren eta langile horiek kontratista berriak subrogatu arren. Hau da, bete behar hori ez dagokio ezein kasutan kontratista berri horri.

27. Beste informazio batzuk

Lizitatzzaileek kontuan hartu beharko dute, halaber, **27. puntuan** jasotako informazio gehigarria.

Sinatuta. Fundación Basque Team Fundazioaren kontratazio-organoa

I. ERANSKINA

BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

II. ERANSKINA

ABAL EREDUA (BEHIN-BEHINEKO BERMEA)

(kreditu-erakundearen edo elkarren bermerako sozietatearen izen soziala) erakundeak, [.....] IFZ duenak, helbidea (jakinarazpenetarako), [.....](e)ko [.....] kalean, [.....] ZKrekin, eta haren izenean (ahaldunaren/ahaldunen izen-abizenak)k, egintza honetan behartzeko adina ahalmen duenak, agiri honen atzealdean jasotako ordezkaritzaaren egiaztapenaren arabera.

[abala jasotzen duenaren izen-abizenak edo abalatuaren izen soziala]ri eta IFZ: [.....] ABALA ematen dio, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean xedatutakoaren arabera, behin-behineko berme gisa, [adierazi entitate kontratatzailearen izena]ren aurrean IFZ: [.....] eta helbidea: [.....]n, [adierazi kontratuaren izena] kontratua adjudikatzeko deitutako lehiaketan parte hartzetik eratorritako betebeharrei aurre egiteko. Zenbatekoa: [letratan] euro ([zenbakitan] euro).

Abala eman duen erakundeak bere erantzukizunpean adierazten du urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko 56.2 artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituela. Abal hau solidarioa da behartu nagusiarekiko, eta eskusioaren onurari uko eginda eta [Erakunde kontratatzailearen izena]ren lehen errekerimenduekin batera ordaintzeko konpromisoarekin eman da, arestian aipatutako legezko testuetan ezarritakoari lotuta.

Abal hau indarrean egongo da [Erakunde kontratatzailearen izena](e)k edo haren izenean aritzeko legez gaitutakoak uzteko edo itzultzeko baimena eman arte, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta legeria osagarrian ezarritakoarekin bat etorriz.

(Tokia eta data) [...].

(Erakundearen izena) [...]

(Ahaldunen sinadura) [...]

KAUZIO ASEGURUAREN ZIURTAGIRIAREN EREDUA (BEHIN-BEHINEKO BERMEA)

Ziurtagiri zenbakia [●] [● *aseguratzailearen izena*]k (aurrerantzean, "**Aseguratzailea**"), helbidea(e)n, kalean eta IFZ duenak,
..... jaun/andreak behar bezala ordezkaturik eta egintza honetarako ahalmena duena ondoko honetatik ondorioztatzen denez: [●ahalordeak adierazi eta kopia erantsi bastanteorako],

ASEGURUA EMATEN DIO [*aseguratutako enpresaren izena*]ri, [.....] IFZrekin, aseguruaren hartzaile gisa (aurrerantzean "**Aseguruaren Hartzailea**"), [*entitate kontratatzailearen izena*]ren aurrean (aurrerantzean "**Aseguratua**"), [*kopurua letratan*] eurora arte ([zifratan] euro), behin-behineko berme gisa, [*entitate kontratatzailearen izena*]ren aurrean ([.....] IFK, helbidea [.....]n) [*adierazi kontratuaren izena*] kontratua adjudikatzeko deitutako lehiaketan parte hartzetik eratorritako betebeharrei erantzuteko.

Aseguratzaileak, bere erantzukizunpean, adierazten du urriaren 12ko 1098/2001 Errege dekretuko 57.1 artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituela.

Aseguru honen baldintzak honako hauek dira:

- (i) Aseguru prima, bakarra, lehenengoa zein hurrengoetako bat, ez ordaintzeak ez dio emango aseguratzailerari kontratua suntsiarazteko eskubiderik; gainera, horrelako kasuetan kontratua ez da azkenduko, ez entitate aseguratzaileraren estaldura etengo, eta, bermea baliatu behar badu, entitate aseguratzailera ez da salbuetsiko kontratua bete beharretik.
- (ii) Aseguratzaileak bere gain hartu du lehenengo agindeia bidali eta berehala Aseguratuari kalte-ordaina emateko konpromisoa, eta ezin izango dizkio aseguratuari ezarri aseguru hartzailearen aurka dagozkion salbuespenak. Era berean, ezingo die eragozpenik jarri ordainketa-errekerimenduei, nahiz eta aseguru-hartzaileak era bateko zein besteko eragozpenak jarri.
- (iii) Aseguratuak eskatzen dizkion zenbatekoak ordaindu beharko ditu aseguratzailera gehienez ere egutegiko bost (5) eguneko epean, helbide honetara: [...] idazki bidez eta beste edozein modutan egindako errekerimendua egiten denetik kontatzen hasita. Aseguratuak eskatutako ordainketak egin beharko ditu aseguratzailera, behin edo gehiagotan, aseguratuak adierazitakoaren arabera, baldin eta, oro har, ez badute gainditzen bermatutako zenbatekoa.
- (iv) Aseguratuaren jakinarazpenean adierazitako banku-kontuan egingo dira ordainketak, oraingo edo etorkizuneko inolako zerga, eskubide, kargu, konpentsazio, kontra-erreklamazio, kenkari edo atxikipenik gabe eta haiengatik edo haien konturako kenkaririk gabe.
- (v) Kauzio aseguru hau indarrean egongo Aseguratuak edo haren izenean aritzeko legez gaitutakoak azkentzeko edo itzultzeko baimena eman arte.
- (vi) Berme hau Espainiako Zuzenbidearen arabera arautzen da. Berme honen karia sortzen diren eztabaidak Bilboko Auzitegietan soilik ebartziko dira; aldeak Auzitegi horren jurisdikzioaren eraginpean egongo dira eta esanbidez egiten diete uko dagozkien bestelako jurisdikzioei.

(Tokia eta data) [...].

(Sinadura) [...]

(Aseguratzailea) [...]III. ERANSKINA

BANKU-ABALAREN EREDUA (BEHIN BETIKO BERMEA)

[...] Bankuak (aurrerantzean, «Bankua») eta, haren izenean eta ordezkari gisa, [...] jaunak/andreak, egintza honetan behartzeko nahikoa ahalmen izanik(e)ko notario jaunaren/andrearen aurrean emandakoa 20.....(e)koren(e)an, bere protokoloaren [...] zenbakiarekin) eta baliogabetu edo aldatu gabe daudela ziurtatuta.

ABALA ematen dio, lehen errekerimenduan eta solidarioki, [...] sozietateari (aurrerantzean, "**Sozietatea**"), [...] IFKrekin eta helbidea [...] (e)n duela, [entitate kontratatzailearen izena]ren aurrean (aurrerantzean, "**Onuraduna**"), [...] IFKrekin eta helbidea [...] (e)n, [...] kalean duela, [zenbatekoa letratan] euroko ([zifratan] euro) gehieneko zenbatekora arte (aurrerantzean, "**Bermatutako Zenbatekoa**"), [adierazi kontratuaren izena] xede duen kontratua behar bezala prestatzearen eta gauzatzearen ondoriozko edozein ordainketa-betebehar betetzeko. Izan ere, Sozietateak aurkeztutako eskaintza hautatu da ekonomikoki onuragarrien, eta Bankuak adierazten du baduela horren berri.

Hona hemen abal honen baldintzak:

- (i) Bankuak ordena-, eskusio- eta zatiketa-onurei esanbidez uko egiten die, baita edozein motatako defentsa proposatzeari ere.
- (ii) Abal hau abstraktua da; beraz, onuradunak ez du zertan adierazi edo justifikatu bermea zergatik egikaritzen duen, eta Bankuak ezin izango die eragozpenik jarri bermearen kontura ordaintzeko errekerimenduei, nahiz eta erakundeak era bateko edo besteko eragozpenak jarri.
- (iii) Onuradunak eskatzen dizkion zenbatekoak ordaindu beharko ditu Bankuak gehienez ere egutegiko bost (5) eguneko epean, helbide honetara: [...] idazki bidez eta beste edozein modutan egindako errekerimendua egiten denetik kontatzen hasita.
- (iv) Onuradunak eskatutako ordainketak egin beharko ditu Bankuak, behin edo gehiagotan, onuradunak adierazitakoaren arabera, baldin eta, oro har, ez badute gainditzen bermatutako zenbatekoa.
- (v) Onuradunaren jakinarazpenean adierazitako banku-kontuan egingo dira ordainketak, oraingo edo etorkizuneko inolako zerga, eskubide, kargu, konpentsazio, kontra-erreklamazio, kenkari edo atxikipenik gabe eta haiengatiko edo haien konturako kenkaririk gabe.
- (vi) Abal honen iraupena mugagabea izango da, onuradunak idazki bidezko adierazpen baten bitartez abalaren kitapena baimentzen duen arte.
- (vii) Berme hau Espainiako Zuzenbidearen arabera arautzen da. Berme honen kariaz sortzen diren eztabaidak Bilboko Auzitegietan soilik ebatziko dira; aldeak Auzitegi horren jurisdikzioaren eraginpean egongo dira eta esanbidez egiten diete uko dagozkien bestelako jurisdikzioei.

Berme hau Bermeen Erregistro Berezian inskribatu da zenbakiarekin 20.....(e)koren(e)an.

(Tokia eta data) [...].

(Entitatearen izena)

(Ahaldun(ar)en sinadura) [...]

KAUZIO ASEGURUAREN ZIURTAGIRIAREN EREDUA (BEHIN BETIKO BERMEA)

Ziurtagiri zenbakia [●] [● *aseguratzailearen izena*]k (aurrerantzean, "**Aseguratzailea**"), helbidea(e)ko kalean eta IFZ..... duena, behar bezala
..... jaun/andreak ordezkaturak, eta egintza honetarako ahalmena duena ondoko honetatik ondorioztatzen denez: [●ahalordeak adierazi eta kopia erantsi bastanteorako],

ASEGURUA EGITEN DIO [● *aseguratuaren enpresaren izena*](r)i, IFZ [●] duena, aseguru hartzaile moduan (aurrerantzean, "**Aseguruaren hartzailea**"), [erakunde kontratatzailearen izena]ren aurrean (aurrerantzean, "**Aseguratu**"), eurora (letraz) arteko zenbatekora (..... euro (zifratu)), behin betiko berme gisa, xede moduan [idatzi kontratuaren izena]tik Aseguratuak jasan ditzakeen betebeharrak, zigor eta gainerako gastuei aurre egiteko; izan ere, Aseguratuak izan da adjudikaziodun eta aseguratzailerak aitortzen du horren jakinaren gainean dagoela.

Aseguratzaileak, bere erantzukizunpean, adierazten du urriaren 12ko 1098/2001 Errege dekretuko 57.1 artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituela.

Aseguru honen baldintzak honako hauek dira:

- (i) Aseguru prima, bakarra, lehenengoa zein hurrengoetako bat, ez ordaintzeak ez dio emango aseguratzailerari kontratua suntsiarazteko eskubiderik; gainera, horrelako kasuetan kontratua ez da azkenduko, ez entitate aseguratzaileraren estaldura etengo, eta, bermea baliatu behar badu, entitate aseguratzailerak ez da salbuetsiko kontratua bete beharretik.
- (ii) Aseguratzaileak bere gain hartzen du Aseguratuari kalte ordaina emateko lehen errekerimendua egiten duenean, eta ezin izango dizkio aseguratuari ezarri aseguru hartzailearen aurka dagozkion salbuespenak. Era berean, ezingo die eragozpenik jarri ordainketa-errekerimenduei, nahiz eta aseguru-hartzaileak era bateko zein besteko eragozpenak jarri.
- (iii) Asegurudunak eskatzen dizkion zenbatekoak ordaindu beharko ditu Aseguratzaileak gehienez ere egutegiko bost (5) eguneko epean, helbide honetara: [...] idazki bidez eta beste edozein modutan egindako errekerimendua egiten denetik kontatzen hasita. Asegurudunak eskatutako ordainketak, behin edo gehiagotan egin beharko dira, asegurudunak adierazitakoaren arabera, baldin eta, oro har, ez badute gainditzen bermatutako zenbatekoa.
- (iv) Asegurudunaren jakinarazpenean adierazitako banku-kontuan egingo dira ordainketak, oraingo edo etorkizuneko inolako zerga, eskubide, kargu, konpentsazio, kontra-erreklamazio, kenkari edo atxikipekin gabe eta haiengatik edo haien konturako kenkaririk gabe.
- (v) Kauzio aseguru hau indarrean egongo Aseguratuak edo haren izenean aritzeko legez gaitutakoak azkentzeko edo itzultzeko baimena eman arte.
- (vi) Berme hau Espainiako Zuzenbidearen arabera arautzen da. Berme honen karia sortzen diren eztabaidak Bilboko Auzitegietan soilik ebartziko dira; aldeak Auzitegi horren jurisdikzioaren eraginpean egongo dira eta esanbidez egiten diete uko dagozkien bestelako jurisdikzioei.

(Tokia eta data) [...].

(Sinadura) [...]

(Aseguratzailea) [...]

IV. ERANSKINA

KONTRATUA

[Aparteko dokumentu batean dago erantsita]

V. ERANSKINA

20. KLAUSULA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

..... jaun/andreak, ondorio hauetarako helbidea(e)n (P.K. [...]), [...] kaleko zenbakian, [...] solairuan, [...] NANA duenak, [...] (r)en ordezkari gisa [ahalordetzak eta abarrek] erakusten duenez, helbidea [...] (e)n (PK: [...]), [...] kaleko zenbakian, solairuan, eta telefonoa duena eta IFK.

ADIERAZTEN DUT

- Nire ordezkatuari esleitutako [identifikatu kontratua] kontratuari dagokionez, orain arte nire ordezkatuak oso-osorik bete dituela lehiaketaren administrazio-klausula zehatzen pleguko 20. klausulan ezarritako exekuzio-baldintza bereziak.
- Halaber, kontratu honen xede diren prestazio guztietan eta kontratistarekiko harremanetan genero-ikuspegia txertatzeko eta hizkera ez-sexista erabiltzeko baldintza berezia betetzen dudala adierazten dut: enpresa lizitatzailerik, proposamenak egitean eta aurkeztean, hizkera ez-sexista erabili beharko dute.

Enpresa adjudikaziodunak kontuan hartu beharko du gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-printzipioa tratuan, enplegua lortzean, sailkapen profesionalean, sustapenean, lanaldiaren iraupenean eta antolamenduan eta kontziliazio-eskubideetan, hargatik eragotzi gabe eskatzen den lanbide-kualifikazioa betetzea.

Kontratua gauzatzeko behar diren dokumentu eta material guztietan hizkera ez-sexista erabiliko da, eta emakumeen irudi diskriminatzaile oro edo estereotipo sexistak saihestuko dira, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta rol eta genero-identitate aniztasunaren balioak dituen irudia sustatuko da.

Genero-ikuspegia sartu beharko da Adjudikaziodunaren plantillarako prestakuntza-ekintak diseinatzean, horien edukietan, zabalkundean eta gauzatzean.

Era berean, enpresa adjudikaziodunak, kontratua indarrean dagoen bitartean, hizkuntza ez-sexista erabili beharko du behin betiko edozein dokumentu idatzitan edo digitaletan. Halaber, datuak sexuaren arabera bereizi beharko ditu pertsonen buruz sortzen den edozein estatistikatan, hori guztia Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 2.3 artikularen babesean. Izan ere, bertan, errespetatu beharreko printzipio orokorrak adierazten dira.

- Formatuei eta haien bateragarritasunari dagokienez, jakinarazten dut komunikabideek edo web euskarri bateragarriek egiten dituzten aldaketen berri badudala, material horiek esportatu eta komunikazioan aurrera egiteko eta berritzeko helburuarekin.
- Agintzen dut grabatutako materiala biltegitatu eta Basque Team Fundazioari entregatuko zaiola, eskatutako gainerako piezekin batera, adierazitako epean. Hala ere, produktoreak zerbitzari bat

izan behar du Fundazioak eskatutako ikus-entzunezko piezak edo amaierako produktuak gordetzeko.

- Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak agintzen duen eran, datu pertsonalen segurtasunari dagokionez, indarrean dagoen araudia betetzen dela bermatzen dut, administrazio kontratatzaileak lagatako datuak erabiltzean eta tratatzean.
- Zerbitzua emateko erabiltzen ditudan ekipamenduei eta kontsumigarriei dagokienez, ingurumen-kalitateari buruzko xedapenak betetzen ditudala adierazten dut. Hori egiaztatzeko, enpresa adjudikaziodunak erantzukizunpeko adierazpena sinatu beharko du, zerbitzua gauzatzeko erabiltzen diren ekipo eta bitartekoek ingurumen-kalitateari buruzko xedapenak betetzen dituztela edo errespetatzen dituztela adierazten duena.

.....(e)n, 20.....(e)koren(e)an

Sinatuta

VI. ERANSKINA**PROPOSAMEN EKONOMIKOA**

..... jaun/andreak, ondorio hauetarako helbidea(e)n
 (P.K. [...]), [...] kaleko zenbakian, [...] solairuan, [...] NANA
 duenak, bere izenean eta eskubide propioz /[...] (r) en ordezkari gisa jardunez, helbidea
 [...] (e) n (PK: [...]), [...] kaleko zenbakian, solairuan, eta
 telefonoa duena eta IFK.

ADIERAZTEN DUT

- (i) Badudala xedetzat [...] duen ("Kontratua") zerbitzu-kontratua adjudikatzeko lizitazio-iragarkiaren berri, eta ezagutzen ditudala administrazio-klausula partikularren eta zehaztapen teknikoen agiriak, bai eta kontratu hau arautuko duten gainerako agiriak ere. Horien edukia berariaz onartzen dut oso-osorik, baldintzarik gabe eta inolako salbuespenik eta erreserbarik gabe.
- (ii) Ordezkatzen dudana enpresak pleguetan eta indarrean dagoen araudian kontratuaren xedea gauzatzeko eskatzen diren baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen dituela.
- (iii) Ordezkatzen dudana enpresak pleguetan eta indarrean dagoen araudian kontratuaren xedea gauzatzeko eskatzen diren baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen ditudala/dituela.
- (iv) Zerbitzu hau emateari dagokionez, **[adierazi zenbakitan eta letratan]** euroko zenbatekoan egitea proposatzen dut, gehi % 21eko BEZa **[adierazi zenbakitan eta letratan]** euro], kontratuaren iraupen-epeari dagokiona eta izan ditzakeen luzapenei ere aplikatzekoa. Prezio horretan sartuta ulertu behar dira, xehekatze asmorik gabe, kontzeptu guztiak, edozein zerga-alorretako zergak, gastuak, tasak eta edozein zerga-alorretako arielak, enpresa kontratistaren etekin industrialak eta gastu orokorrak barne.
- (v) Esperientzia profesionala:
 - 1. Goi-mailako euskal kirolarekin lotutako ikus-entzunezko sorkuntzaren arloko esperientzia (kirola eta emakumea eta kirol egokitua izan ezik):
 - Produktua edo ikus-entzunezko pieza 1: Izenburua..... Web esteka.....
 - Produktua edo ikus-entzunezko pieza 2: Izenburua..... Web esteka.....
 - Eta abar.
 - 2. Goi-mailako euskal kirolariekin (kirola eta emakumea, gainerako kategoriak alde batera utzita) lotutako esperientzia ikus-entzunezko sorkuntzaren esparruan:
 - Produktua edo ikus-entzunezko pieza 1: Izenburua..... Web esteka.....
 - Produktua edo ikus-entzunezko pieza 2: Izenburua..... Web esteka.....
 - Eta abar.

3. Aniztasun funtzionala duten goi-mailako euskal kirolariekin lotutako esperientzia ikus-entzunezko sorkuntzaren esparruan (goi-mailako kirol egokitua, gainerako kategoriak alde batera utzita):

- Produktua edo ikus-entzunezko pieza 1: Izenburua..... Web esteka.....
- Produktua edo ikus-entzunezko pieza 2: Izenburua..... Web esteka.....
- Eta abar.

4. Online streaming bidezko zuzeneko emisioetan izandako esperientzia:

- jaulkipena: Titulua..... Web esteka.....
- jaulkipena: Titulua..... Web esteka.....
- Eta abar.

.....(e)n, 20.....(e)koren(e)an

[●].

P.p.

D. [●] (*Aldi baterako elkartzeen kasuan, kide guztiek sinatuko dute proposamena.).

VII. ERANSKINA

Interes gatazkarik ezaren erantzukizunpeko adierazpena (IGEA)

¹ jaunak/andreak, bere izenean edo
(operadore ekonomikoa) ordezkatzuz (IFZ:), zenbakia duen
espedienteari dagokionez, eta goian aipatutako kontratazio-prozeduraren inpartzialtasuna
bermatze aldera:

1.1. Lehenengoa. Adierazten dut, administrazio publikoak lizitatutako kontratuei dagokienez, ezagutzen ditudala honako hauek:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (EBren finantza-erregelamendua) 61.3 artikulua («interes-gatazka») ezartzen duela “interes-gatazka egongo dela funtzioen jardun inpartzial eta objektiboa arriskuan jartzen denean familia-arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, kidetasun politiko edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik”.

2. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa») helburua dela lehiaren distortsio oro saihestea, prozedura gardena dela ziutatzea eta hautagai eta lizitatzailerik guztientzat tratua berdina dela bermatzea.

3. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. Artikuluak («Abstenitzea») ezartzen duela prozeduran esku hartzetik abstenituko direla “administrazioetako agintari edo langileak, hurrengo zenbakian aipaturiko egoeretakoren batean daudenean”, zehazki, egoera hauetako batean:

- a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai hori nola ebatziko den baldintzatu dezakeen besteren batean; baltzu edo erakunde interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.
- b) Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritzarako.
- c) Aurreko idatz-zatian aipaturiko lagunetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.

¹ Operadore ekonomiko bik edo gehiagok batera aurkezten badute eskaintza, eta konpromisoa adierazten badute adjudikaziodun izanez gero ABEEa formalki eratzeko, operadore guztien ordezkariak sinatu beharko dute deklarazio hau.

- d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartua izatea.
- e) Gaian zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri, azken bi urteetan, zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein motatakoak eta edozein baldintza eta tokitan».

1.2. **Bigarrena. Adierazten dut:**

1. Ez nagoela/gaudela EBren Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan interes-gatazkatzat sailkatzen diren egoeretako ezeinetan, eta ez nagoela/gaudela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan ezartzen diren eta lizitazio-prozeduran eragina izan dezaketen abstenitzeko arrazoi-tako ezeinen mende.
2. Konpromisoa hartzen dudala/dugula kontratazio-organoari jakinarazteko, luzamendurik gabe, egoera hori sortzen duen edo sor dezakeen edozein interes-gatazka edo abstenitzeko arrazoi, eta ez dudala parte hartuko ebaluazio-prozesuan ezta prozedurarekin zerikusia duen beste ezein jardunbidetan.
3. Konfidentzialtasunez tratatuko ditudala prozedura hauen esparruan garatzen diren gaiak eta dokumentazioa, eta ez dudala desegoki erabiliko prozedura hauetan parte hartzeagatik ematen zaidan informazioa.
4. Badakit interes-gatazkarik ez dagoela dioen adierazpen bat faltsua dela frogatzen bada, aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen diziplina-ondorioei, ondorio administratiboei edo judizialei aurre egin beharko diedala.

.....(e)n, 20.....(e)ko(a)ren(e)(a)n

Sinadura:

Datu pertsonalen babesari buruzko oinarritzko informazioa.

Behar bezala betetzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), eta datu-babesaren alorrean indarrean dagoen gainerako araudia, jakinarazten da datu pertsonalak tratamendu-jarduera honen barruan sartuko direla: «Kontratazioaren kudeaketa»:

1. **Arduraduna:** Dagokion kontratazio-organoa.
2. **Helburua:** kontratazio publikoaren prozeduraren kudeaketa, fase guztietan, betearazpena, aldaketak, luzapenak, epe- edo prezio-aldaketak, azken zenbatekoa eta iraungipena barne hartuta, baita adjudikazio-prozeduran atzera egiteko erabakiak, kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakiak eta kontratistari egotzi ahal zaizkion eta kontratua suntsiaraztea eragin duten gorabeherak ere.
3. **Legitimazioa:** beharrezkoa tratamendua interesduna parte den kontratu bat betearazteko eta tratamenduaren órgano arduradunari aplikagarria zaion lege-betebeharra betetzeko.
4. **Hartzaileak:** Interes legitimoa dutenei eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiari eman ahal izango zaizkie datu pertsonalak.
5. **Eskubideak:** Eskubidea duzu zure datuetarako irispidea izateko, datu horiek

zuzentzeko eta ezabatzeko edo datuen tratamendua mugatu edo haren aurka egiteko.

VIII. ERANSKINA

Ingurumenari Kalte Esanguratsurik Ez Eragiteari Buruzko Erantzukizunpeko Adierazpena (DNSH Printzipioa)

²Nik, jaunak/andreak, nire izenean edo [erakunde ekonomikoaren] ordezkaritzan (IFZ:) [erakunde ekonomikoarena], Espediente-zenbakia duen kontratuaren esleipen-prozedurari dagokionez.

Lehenengoa. Aurkeztutako eskaintzak honako baldintza hauek betetzen dituela:

1. Ingurumenari dagokionez jasangarriak diren jarduera ekonomikoak sailkatzeko sistema (edo «taxonomia») baten bidez, inbertsio jasangarriak ahalbidetzeko esparru baten ezarpenari buruzko (EB) 2020/852 Erregelamenduaren 17. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, proiektuan garatutako jarduerak ez diote kalte esanguratsurik eragiten ingurumeneko helburu hauei:
 - a. Klima-aldaketa arintzea.
 - b. Egokitzapena klima-aldaketara.
 - c. Baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera jasangarria eta babesa.
 - d. Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklatzea barne.
 - e. Atmosferaren, uraren eta lurzoruen kutsaduraren prebentzioa eta kontrola.
 - f. Biodibertsitatearen eta ekosistemen babesa eta leheneratzea.
2. Garatutako jarduerak, hala badagokie, Elementuaren neurrirako eta azpineurritako ezarritako ezaugarrietara eta baldintzetara egokitzen dira, eta horiek Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean islatuta daude.
3. Proiektuan zehar garatutako jarduerak indarrean dagoen ingurumenari buruzko araudia beteko du.
4. Garatutako jarduerak ez daude baztertuta planaren finantzaketatik, «kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa aplikatzeari buruzko gida teknikoarekin bat etorrita, hauek direla bide: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko (2021/C58/01) Erregelamendua, Espainiako suspertze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren exekuzio-erabakiaren proposamena eta horri dagokion eranskina.

² Operadore ekonomiko bik edo gehiagok batera aurkezten badute eskaintza, eta konpromisoa adierazten badute adjudikaziodun izanez gero ABEEa formalki eratze, operadore guztien ordezkariek sinatu beharko dute deklarazio hau.

5. Garatutako jarduerak ez daukate zuzeneko ondorioz ingurumenean, ezta zeharkako ondorio primarioz ere haien bizi-ziklo osoan zehar. Halakotzat jotzen dira amaitu ondoren, jarduerak egin eta gero, agertu ahal direnak.

Bigarren. Badakiela eta onartzen duela adierazpen honetan ezarritako betekizunetako bat betetzen ez bada, itzuli egin beharko direla jasotako kopuruak eta dagozkien berandutze-interesak.

.....(e)n, 20.....(e)ko(a)ren(e)(a)n

Sinadura:

Datu pertsonalen babesari buruzko oinarritzko informazioa.

Behar bezala betetzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoaren babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), eta datu-babesaren alorrean indarrean dagoen gainerako araudia, jakinarazten da datu pertsonalak tratamendu-jarduerak honen barruan sartuko direla: «Kontratazioaren kudeaketa»:

1. **Arduraduna:** Dagokion kontratazio-organoa.
2. **Helburua:** kontratazio publikoaren prozeduraren kudeaketa, fase guztietan, betearazpena, aldaketak, luzapenak, epe- edo prezio-aldaketak, azken zenbatekoa eta iraungipena barne hartuta, baita adjudikazio-prozeduran atzera egiteko erabakiak, kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakiak eta kontratatari egotzi ahal zaizkion eta kontratua suntsiaraztea eragin duten gorabeherak ere.
3. **Legitimazioa:** beharrezkoa tratamendua interesduna parte den kontratu bat betearazteko eta tratamenduaren órgano arduradunari aplikagarria zaion lege-betebeharra betetzeko.
4. **Hartzaileak:** Interes legitimoa dutenei eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiari eman ahal izango zaizkie datu pertsonalak.
5. **Eskubideak:** Eskubidea duzu zure datuetarako irispidea izateko, datu horiek zuzentzeko eta ezabatzeko edo datuen tratamendua mugatu edo haren aurka egiteko.

INFORMAZIO OSOA VII.1 ERANSKINEAN: «DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA»